

TREBAKUNTZA 2019-09: ERLATIBOZKOA (I)

Erlatibozko perpausen ezaugarri nagusia hauxe da: bi perpaus lotu nahi ditugu bi esaldietan **errepikatzen den hitzaren bitartez**.

Hona hemen adibidea:

Ad. Liburu bat irakurri dut; (liburua) oso ona iruditu zait.

LIBURU hitza bi esaldietan dagoenez, erlatibozko esaldiaren bidez biak lot ditzakegu: *Irakurri **duda**N LIBURUA oso ona iruditu zait.*

Nolanahi ere, euskaraz ezin ditugu esaldi guztiak josi -N erabilita. Gaztelaniaren eraginez, DEN erlatibozkoa erabili ohi dugu; batez ere, izen propio eta karguekin. Esaldi horiek **okerrak** dira.

Ad. Gure elkarteko lehendakaria den Mireia Arteagak argituko ditu gai-zerrendako lehen bi puntuak.

Esaldi hori okerra da, pertsonaren izen-abizenak eta kargua beste modu askotan lotzen baitira euskaraz, zuzenketetan ikusiko dugunez.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Unibertsitateko errektorea **den** Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.
2. * Nire lagun **den** Fermin pianojotzaile trebeak, kontzertu asko eman ditu aurten.
3. * Musikazale amorratua **den** gure herriko alkateak begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.
4. * Aski zabala **den** haren etxean erraz kabituko gara denok.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

5. * Gure trainerua **den** Antiguako Ama ez da sailkatu Euskal Liga jokatzeko.

6. * Gure laguna **den** mutil senegaldarrak ahalegin handia egin du euskara ikasten.

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Erlatibozko DEN hori ekiditeko, bi aukera dira erabilienak:

1. Izena eta kargua elkarren segidan jarri eta bukaerako hitza bakarrik deklinatzea:

Ad. **Mireia Arteaga gure elkarteko lehendakariak** argituko ditu gai-zerrendako lehen bi puntuak.

2. Kargua koma artean jartzea. Kasu horretan izen-abizenak eta karguak deklinatu behar dira.

Ad. **Mireia Arteagak, gure elkarteko lehendakariak**, argituko ditu gai-zerrendako lehen bi puntuak.

Hona hemen esaldiak, behar bezala idatzita:

1. Ad. **Edurne Mendiluze Unibertsitateko errektoreak** aurkeztu du txostena.
Edurne Mendiluzek, Unibertsitateko errektoreak, aurkeztu du txostena.

2. Ad. **Nire lagun Ferminek, pianojotzaile trebeak**, kontzertu asko eman ditu aurten.

3. Ad. **Gure herriko alkateak -musikazale amorratua bera-** begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.

4. Ad. **Haren etxean -aski zabala dena-** erraz kabituko gara denok.

5. Ad. **Gure trainerua, Antiguako Ama**, ez da sailkatu Euskal Liga jokatzeko.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

6. Ad. **Gure lagun mutil senegaldarrak** ahalegin handia egin du euskara ikasten.
Gure lagunak, mutil senegaldarrak, ahalegin handia egin du euskara ikasten.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699